

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu bat martxan jartzeko unean, hainbat baliabide izango dira ezinbestekoak dena aurrera eramateko, hauek intelektualak nahiz materialak izanik, eta bakoitzak bere aldetik jarriko du baliabide guzti hauek erabiliz egitasmoak osotasunean zentzua izan dezan.

Finantza baliabideei dagokienez, gure proiektua aurrera ateratzeko hasiera batean taldekide bakoitzak diru kopuru txiki bat jarri beharko du, ez dugunez produkturik eskaintzen, kantitate txiki batekin hastea nahikoa dela deritzogu.



Benetan beharrezko baliabide materialak gure kasuan garbiketan lagunduko digutenak izango dira, hau da, boltsak, eskularruak, garbitzeko makilak... etab.



Publizitate-kontuetan murgildu ahal izateko, beste baliabide fisiko batzuen beharra izango dugu: ordenagailu bat eta mugikor bat, hain zuzen ere. Hala eta guztiz ere, baliabide hauek ez dute kostu bat suposatuko proiektuarentzat, izan ere, gure etxetik eskuratu ahal izango ditugu egoera onean dauden ordenagailuak eta mugikorrak, eta hauen bitartez jarriko ditugu funtzionamenduan webgunea eta sare sozialak.

Garraioa kontuan hartzen badugu, kamioi handi baten beharra izango dugu, jakina, eta hori lortzeko San Marko Mankomunitatekoetaz baliatuko gara, hau da, hauei zaborraren garraioaz arduratzeko eskatuko diegu. Honi esker, jasotako hondakinak birziklatzera eramango ditugu.

Jakina, ezin dugu ahaztu hondartzen garbiketan benetan funtsezkoena zer den: gure partaideak, hau da, giza-baliabideak. Haiei esker gure helburua lortu ahal izango dugu, haien laguntza beharko dugu garbiketa behar bezala gauzatzeko, eta hilabetero Donostiako hondartzak garbi mantentzeko meritua haiena nahiz gurea izango da.

Proiektuan bakoitzak egin beharreko eginkizunak banatzeko, abileziak kontuan hartu ditugu, eta honen arabera sailktu ditugu:

Hasiera batean, gure egitasmoa jendearengana iristeko, publizitateaz baliatuko gara. **Nora** izango da atal hau eramango duena, sare sozialetan interesatuta dagoelako, eta mundu honetan abilezia duelako. Gainera, marraztea gustuko du eta horretarako duen gaitasuna ondo datorkigu Donostian zehar jarriko

ditugun publizitate kartelen diseinua egiteko. Jarduera hauekin karteletan ikusiz jendeak egingo dugunataz ohartuko dira

Mirenek, bezeroekin komunikatzeko gaitasuna eskainiko digu, ezezagunekin hizketan hasteko erreztasuna duelako, hau da, pertsonekin komunikatzeko irekia da eta horretarako abilezia du. Jarduera hau funtseskoa izango da, gure proiektua ezagutzera emateko ezinbestekoa delako.

Ederrek, berriz, oso ondo eramaten du antolaketa, eta trebea da jendea zuzentzen; hau kontuan edukita, garbiketarako taldeak sortzeaz arduratuko da. Jarduera hau beharrezkoa izango da hondartza modu atolatuan garbitzeko, eta ez bakoitzak nahi duen moduan.



Iñakik, ostera, besteekin erlazionatzeko eta konbenitzeko duen erreztasunagatik, udalarekin ditugun harremanetaz arduratuko da. Garrantzitsua delako udalak gure egitasmoa argi edukitzea, eskatzen dioguna ulertu ahal izateko. Jarduera hau egingo ez bagenu, udalak, ez luke proiektuan parte hartzen dutenei hondakinen-tasa kenduko, beraz, jendea ez litzateke gure egitarasmoan interesatuko.

Adam txukuntasunerako pertsonarik zorrotzena dela uste dugu, ondorioz, hondakinen kudeaketaz arduratuko da. Gainera, txikitatik informatikan interesatuta egon da, eta hainbat ikastaro egin ditu, beraz, gure web-gunea sortzeaz ere arduratuko da. Jarduera hauek ezinbestekoak dira partaideek egingo duguna jakin ahal izateko eta gurekin komunikatzeko

Azkenik, ezinbestekoa da nabarmentzea guztiok parte hartuko dugula hondartzak garbitzen, eta lehenak garela egitasmoarekin, bertako partaideekin eta Donostiako hiriarekin konprometitzen.